



# BOLI KOSTA

## PROIEKTUA



"AKWABA"

Auzoa: **ABOBO**

Udalerria: **ABIDJAN**

## BIZTANLERIA

638.237



## MUGAK

- Ébrié urmaela
- Gineako Golkoa
- Ozeano Atlantikoa

## AZALERA

82 km<sup>2</sup>



# AKWABA - BOLI KOSTA

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Akwaba etxea kaleko haurrak zaintzeaz, babesteaz eta bizitzarako aukera bat emateaz arduratzen da. Jatorrian kaleko umeentzat bakarrik zen, baina gaur egun beste larrialdi eta behar batzuei ere erantzuten die. Bazterkeria-egoeran dauden eta hainbat arazo dituzten haur horiek babesteaz eta harrera egiteaz arduratzen da Akwabako etxea.

Akwabak, bertako hizkuntzan "ongi etorri" esan nahi du, 50 haur inguru hartzen ditu urtero barnetegian, eta behar duten guztia eskaintzen die, bai sendatzeko edota euren familian eta gizartean gizarteratzeko. Adina 4 eta 16 urte bitartekoa da.

Boluntarioek hainbat arazo dituzten haur horien hezkuntzaren erronkan parte hartu behar dute bertako hezitzaileekin batera. Hezkuntza-jardueren bidez Akwaba etxearen ikuspegia eta helburuak barneratzen saiatuko dira.

## PROIEKTUAREN KOKAPENA

Akwaba etxea Abobo auzoan dago. Lotarako auzo bat da. Hau da, biztanle gehienek kanpoan egiten dute lan eta gaverako joaten dira auzora. Batez ere maila ekonomiko baxua duten pertsonen osatuta dago. Herritar xumeen auzo herrikoia da. Etxea Henriette Bédié ospitalearen eta auzoko zergen bulegoaren artean dago kokaturik.

Abobo da, zalantzarik gabe, Abidjango auzorik pobreena, eta landa-eremuetatik etorritako familia gehienak bertan kokatu izan dira. Auzoak ez du hirigintza-antolamenduko planik ez eta saneamendu-sararik ere. Abidjan langabezia- eta pobrezia-indize handienak dituen auzoa da, eta gainera, jaiotza-tasa handikoa, 130 eta 200 jaiotza artean egunean. Segurtasunean, osasun publikoan eta haurren eskolatzean dauden gabeziak ere larriak dira Abiyanen.

Pobrezia, langabezia, familia-zatiketa eta krisi sozio-politikoak direla eta, egoera oso larria da, eta pobrezia astinduak gogorrago kolpatzen ditu haur eta gazteak. Hori dela eta, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden gazteen kopurua oso handia da (kaleko haurrak, lanean dabiltzanak, abandonatutako eta esplotatutakoak, gatazka armatuetan inplikaturakoak, HIESa dutenak, askatasunik gabeko egoeran dauden haur eta gazteak, etab.).

## PARTAIDE KOPURUA

2-3 Pertsona 



## PARTE-HARTZE EREMUAK

Honako lan-eremuetan parte-hartu ahal izango da:

- Hurbiltasuna eta presentzia mutilen artean: Etxeko hezitzaile bat bezala.
- Errepaso-klaseak, kirol- eta jolas-jarduerak, kultura- eta arte-jarduerak, etxeko eta auzoko mutil eta neskontzako jardueretan laguntzea.
- Formazio-tailerren bat, psikopedagogia, aisialdiko jarduerak eta etxeko hezitzaileekin kultura- eta formazio-trukea eskaintzeko aukera.
- Anaien Elkartearen bizitzan txertatzea: jatordua, aisia, otoitza...
- Etxetik kanpo leku jakin batean haur eta gazteen kanpaldian parte hartzeko aukera.

## BOLUNTARIOAREN PROFILA

- Hezkuntza-esperientziak dituzten pertsonak, frantsesez hitz egiten moldatzen direnak eta elkartearen bizitzeko gai direnak.
- Pertsona sentiberak, bizipen gogorrak dituzten haurren izaerari irekiak.
- Tokian tokiko egoerara egokitu daitezkeen pertsona irekiak eta Europako eta Afrikako bizimoduaren arteko bereizketa egiten dakitenak (janaria, neska-mutilen portaera, lana, ingurumena).
- 25 urte baino gehiago izatea nolabaiteko egonkortasun emozional, psikologiko eta afektiboarekin.

## BOLUNTARIOEN OSTATUA

Akwaba Etxean bi entitate daude: Anaien Elkarte eta haurrak zaintzeaz eta babesteaz arduratzen den Zentroa. Nabarmendu ditzakegu baita ere Oinarrizko Eskola, haurren etxea, gazteen tailerrak eta haurren eguneroko zereginari laguntzen dioten beste azpiegitura batzuk.

Boluntarioek Anaien elkartearen bizitzan parte hartuko dute. Anaien elkartearen izango dute ostatua. Normalean, bakoitzak bere gela izango du zerbitzu osoarekin. Otorduak Anaiekin izango dira. Elkartearen beti egongo da adi, janari kontuan bertakoen eta Europakoaren artean janari orekatu bat eskaintzeko.





